



## **V. DEIALDIA, IKASLEEN ETA ENPLEGAGARRITASUNAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZARENA, DESGAITASUNARI HEZKUNTZA PREMIA BEREZIEI BURUZKO ETA MASTER AMAIERAKO LANEN «IZASKUN HERAS PRADO» SARIA IRAGARTZEKOA.**

### **1. DEIALDIAREN HELBURUA ETA EREMUA**

1.1. Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren bidez, Izaskun Heras Prado sariaren V. ediziorako deialdia egiten du, desgaitasunari eta hezkuntza premia bereziei buruzko master amaierako lanak (MALak) saritzeko, horrela UPV/EHUko III. Inklusio Plana (2019-2021) betez, zehazki III. ardatzeko 3.3 ekintza: *Kultura inklusiboa UPV/EHUko unibertsitateko kideen artean zabaltzea, eta gizartearen sentsibilizazioan laguntzea.*

Saria inklusioa bultzatzeko sortu da, inklusioa eraldaketa ingurunea eraldatzek prozesu bezala ulertuta, pertsona guztien eskubideak eta premiak izan ditzan kontuan, eta hartara gure unibertsitatea guztiontzako tokia izan dadin. Azpimarratu beharra dago helburu nagusia ingurua eraldatzea dela, eta ez pertsonak inguru horretara egokitzea, guztientzako diseinua eta irisgarritasun unibertsala oinarri hartuta.

Sari honen bidez Izaskun Heras Prado izan nahi dugu gogoan: UPV/EHUko ikasle izan zen, eta emakume aparta, aitzindaria desgaitasunak dituzten pertsonen inklusioa lortzeko unibertsitatean. Halaber, sari honekin gogoan hartu nahi ditugu desgaitasunak edo hezkuntza premia bereziak dituzten eta, Izaskun Herasen arrastotik, benetako inklusioaren alde egunero lanean diharduten guztiak.

1.2.- Deialdi honetara aurkeztu ahal izango dira UPV/EHUko master ofizialetako ikasle guztiak, jakintza adar guztietakoak.

### **2. ESKARIAK AURKEZTEKO ERA ETA EPEA**

2.1. Eskariak **2022ko irailaren 30era arte** aurkeztu ahalko dira.

2.1.1. Lehendabizi, esteka honetan dagoen formularioa bete beharko da:

[Formulariorako esteka](#)

Eskari orriari erantsi beharko zaio lana laburtzen duen eskema bat: justifikazioa, marko teorikoa, helburuak. (Gehienez bi orri).

Bigarrenik, formularioa UPV/EHUko erregistro elektronikotan aurkeztu beharko da (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>, «jasotzailea» eremuan «Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetza» aukeratuta lehenbizi, eta gero «Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua». Identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili beharko da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUko langile txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Ziguilaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da



sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskariak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, zeinaren bidez onartzen diren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

2.1.2. Bide telematikoz bidalitako eskariak aurreko paragrafoan adierazitako prozeduraren bidez erregistratu ez badira, AURKEZTU GABEKOTZAT joko dira, eta saritik kanpo geratuko dira.

2.3 Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioari zerbait falta bazaio edo akats zuzengarriren bat baldin badauka, eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio falta diren dokumentuak aurkezteko edo akatsa zuzentzeko, eta jakinaraziko zaio hala egin ezean eskaria artxibatu egingo dela bestelako tramiterik gabe.

### 3. MASTER AMAIERAKO LANAK AURKEZTEKO ERA ETA EPEA

3.1 Master amaierako lanak **2022ko azaroaren 11** arte aurkeztu ahal izango dira, eta **aurretik defendatutakoak eta master bakoitzeko batzordeak onetsiak** izan beharko dira.

3.2. Lehendabizi, eskaria telematikoki bete beharko da, esteka honetan dagoen formularioa betez:

<https://www.ehu.eus/eu/web/discapacidad/enlace-formulario-registro-tfm-premio-izaskun-heras-v-convocatoria>

Formularioan identifikazio datuak jarri beharko dira (izen-deiturak, NAN zk. eta helbide osoa) eta lanaren izenburua.

Bigarrenik, formularioa UPV/EHUko erregistro elektronikoa aurkeztu beharko da, lanarekin batera, gorago azaldutako moduan. «Jasotzailea» eremuan «Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetza» aukeratu behar da lehenbizi, eta gero «Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua».

Eskaria aurrez aurre aurkezten bada erregistro bulego batean, formularioarekin batera lana dakarren pendrive bat entregatu beharko da, gutun azal itxi batean sartuta, eta gainean izenburua baino ez da idatzi beharko. Ezin da ez sinatu ez izena jarri, lana guztiz anonimoki aurkez izan dadin. Gutun azalaren barruan dokumentu bat sartu beharko da, egilearen identifikazio datuekin (izen-deiturak, NANA eta helbide osoa).

Eskaria UPV/EHUko egoitza elektronikoa bidez erregistratzen bada, bi dokumentu erantsi beharko zaizkio: bata lanarena eta bestea egilearen identifikazio datuena.

3.3. Bide telematikoz bidalitako eskariak aurreko paragrafoan adierazitako prozeduraren bidez erregistratu ez badira, AURKEZTU GABEKOTZAT joko dira, eta saritik kanpo geratuko dira.



2.3 Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioari zerbait falta bazaio edo akats zuzengarriren bat baldin badauka, eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio falta diren dokumentuak aurkezteko edo akatsa zuzentzeko, eta jakinaraziko zaio hala egin ezean eskaria artxibatu egingo dela bestelako tramiterik gabe.

#### **4. SARIAREN ZENBATEKOA**

4.1. Lehen saria iPad air bat izango da, eta bigarrena 400 euroko bale bat EHUdendarako.

4.2. Saria emateke geratu ahal izango da, epaimahaiak hala erabakiz gero.

4.3. Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak lan irabazlea argitaratu ahal izango du bere web orrian edo prentsan.

#### **5. EPAIMAHAI A**

5.1. Epaimahaiak osakide hauek izango ditu: inklusioaren gaian adituak diren hiru irakasle, ikasleen arloko zuzendaria, Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuko kide bat eta masterreko edo doktoregoko ikasle bat, Ikasleen Kontseiluak izendatua.

5.2. Epaimahaiak iritzia eskatu ahal izango die epaimahaitik kanpoko profesional, ikertzaile edo espezialistei.

##### **5.3 Balorazio irizpideak**

- Lanaren kalitatea eta horren barruan: helburuak behar bezala definituta izatea, datuak zorrotasunez erabiltzea, lana zehaztasunez egitea eta azalpena argia izatea.
- Lanaren garrantzia eta originaltasuna, eta honen barruan: gaiaren, ikuspegiaren edo arloaren berritasuna; interesa; ikerketaren etikari dagozkion praktika onak erabiltzea; eta lotura izatea euskal gizartearekin.
- Baloratuko da lanak inklusioaren printzipioak aintzat hartzea, eta lana bera inklusioaren ikuspegitik eginda egotea. Era berean, kontuan hartuko da lanak zelako ekarpena egiten dion unibertsitate edo gizarte inklusibo baterako behar diren aldaketen gaineko eztabaidari, edo zelako aukerak dauden lanean proposatutakoa praktikan aplikatzeko.
- Halaber, aintzat hartuko da lanak egiten duen proposamenaren eragimen soziala eta irismena unibertsitatean eta gizartean oro har, ingurunearen egokitzapenari ematea lehentasuna eta ez mugatzea kasu partikularretara.

5.4 Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

## 6. ERABAKIA

6.1 Deialdiaren ebazpena **2022ko abenduaren 15ean** argitaratuko da web orrian ([www.ehu.eus/discapacidad](http://www.ehu.eus/discapacidad)).

6.2 Deialdi honetan parte hartzeak berez dakar oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakiak beren osoan onartzea, eta modu espresoan uko egitea haien kontrako errekurtsuak jartzeari.

Donostian, 2022ko maiatzaren 23an

**Fernando Tapia Alberdi**

Ikasleen eta Enplegagarritasunaren Arloko Errektoreordea